



## PRENTA-OHARRA

Kutxabankek eta ADEGI, CEBEK eta SEA enpresa-erakundeek sortu dute **2.000 milioi** euroko lerro hau

## ‘Kutxabank Eco Finance’ programak euskal enpresen hazkunde jasangarria bultzatuko du

- **Ingurumen-inpaktua gutxitzea eta ekonomia jasangarri eta integratzailerako trantsizioa sustatzen duten inbertsioek finantzaketa-baldintza bereziak izan ditzakete, irekiera-komisiorik gabe**
- **Klima-aldaketa prebenitzen eta arintzen eta karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa laguntzen duten ekimenak bultzatuko ditu**

**2024ko martxoaren 11n.** Kutxabankek eta ADEGI, CEBEK eta SEA euskal enpresa-erakundeek izaera iraunkor edo jasangarria duten enpresa-inbertsioak bultzatuko dituzte. Inbertsio horien helburua izango da ingurumen-inpaktu negatiboa minimizatuko duten jarduerak egitea, eraginkortasun energetikoa hobetzea, karbono-aztarna murriztea eta hazkunde jasangarri eta integratzailea garatzea.

Horretarako, ‘**Kutxabank Eco Finance**’ izeneko finantzaketa-lerro berezia sortu dute, **2.000 milioi eurokoa**. Hitzarmen honek **lehentasunezko baldintzak** eta irekiera-komisiorik gabe ezartzen ditu ingurumen-inpaktu positiboa dakarten ekimenak finantzatzeko, bai **leasing**-eragiketetan, bai **mailegu**-eragiketetan.

Lerro berezi honen helburua da enpresa-jarduera pixkanaka egokitzea Garapen Jasangarrirako Helburuetara eta Nazio Batuen Banka Arduratsuaren Printzipioetara. Horren haritik, enpresen energia-eraginkortasuna hobetzeko, energia berriztagarriak erabiltzeko, kontsumo txikiko higiezinak eta ekipamenduak erosteko edo egokitzeko, eta karbono-isuri gutxi edo zero ibilgailuak erosteko inbertsioak bultzatuko ditu. Baldintza horien onuradun izango dira, halaber, uraren edo beste baliabide natural batzuen kudeaketa jasangarrian, kutsaduraren prebentzio eta kontrolean, CO2 isuriaren murrizketan eta nekazaritza ekologikoko ekimenetan egindako inbertsioak.

Hitzarmena indarrean egongo da 2025eko martxora arte, eta gaur sinatu dute **Eduardo Ruiz de Gordejuela** finantza-erakundeko kontseilari delegatuak eta **Eduardo Junkerak**, Gipuzkoako Enpresaburuen Elkartearen (ADEGI) ordezkari gisa, **Carolina Pérez Toledok**, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioko (CEBEK) ordezkari nagusi gisa, eta **Pascal Gómezek**, SEA-Arabako Enpresarien izenean.

Ekitaldian, **Kutxabankeko kontseilari delegatuak** bankua jasangarritasunarekin lotzen duen konpromiso historikoa azpimarratu du. “Ingurumenarekiko konpromisoa gure DNAren parte da. Horregatik, Euskadiko enpresa-sarearen funtsezko aliatua izan nahi dugu gure inguruko karbono-aztarna minimizatzeko eginkizunean. Finantza aldetik, gero eta etorkizun jasangarriagoa bultzatzen duten ekimenak babesteko oso prest gaude. Gainera, gure bezeroen aurrezkiaren kudeaketa sozialki arduratsuaren bidez, jasangarritasunean hobeto diharduten enpresetara ere mobilizatzen ditugu finantza-baliabideak”.

**Eduardo Junkerak**, **Adegiko** presidentea, adierazi duenez, “euskal enpresak aspalditik daude kokatuta jasangarritasunaren abangoardian. Adibidez, ISO14.000 ziurtagirien sartzea Europako lehenengoan artean dago. Izan ere, Euskadiko enpresa-sarearen ekarpenari esker, energia-intentsitatea eta berotegi-efektuko gasak isurtzea heren bat murriztu da azken 20 urteetan. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu abian jarri dugun finantzaketa-lerro hau, euskal enpresen hazkunde jasangarria eta ingurumen-jardueretara bideratutako enpresa-inbertsioak bultzatzen jarraituko baitu Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat etorritik, horrela euskal enpresen konpromiso historikoa adieraziz jasangarritasunarekin eta karbono-aztarnaren minimizazioarekin”.

**Carolina Pérez Toledok**, **CEBEKeko** presidentea, zera adierazi du: “Finantza-tresnak eta bestelako tresnak eman nahi dizkiegu enpresei, modu jasangarrian garatu daitezten. Hori Bizkaiko Enpresarien Konfederazioaren lehentasuna da, eta lurraldearekiko eta haren garapenarekiko konpromisoa nabarmentzen duen strategiaren parte da”.

**Carolina Pérez Toledok**, **CEBEKeko** presidentea, adierazi duenez, “oso garrantzitsua da gure enpresetan jasangarritasunerantz aurrera egitea. Funtsezkoa da klima-aldaketari aurre egiteko premia aitortzea eta gure ingurumen-inpaktu negatiboa minimizatuko duten enpresa-jardunbideak onartzea. Ekimen honek aukera ezin hobea eskaintzen du eraginkortasun energetikoa, CO2 isurien murrizketa eta baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatzen dituzten inbertsioak bultzatzeko. GJHeekin eta Nazio Batuen Banka Arduratsuaren Printzipioekin lerrotatzean, epe luzera arrakasta izateko kokatzen ari gara gure enpresak, eta, aldi berean, gure ingurunearen ongizaterako ekarpen positiboa egiten dugu”.

**Pascal Gómez**, **SEA-Arabako Enpresarien** presidentea, pozik agertu da akordio hau sinatzeagatik. Izan ere, alde batetik, Kutxabanken eta euskal enpresen arteko lankidetzak estua erakusten du, eta, bestetik, ingurumen-alderdiak azpimarratzen ditu bereziki, SEArentzat funtsezko atala dena, aspalditxotik horretarako "ad hoc" zerbitzu bat izateak erakusten duen bezala. Zerbitzu horretan, “Arabako enpresak harremanetan jartzen ditugu elkarteko ingurumen-aholkularitza zerbitzuekin, nahitaezko arauzko alderdiak eta borondatezko hobekuntzak ezagut ditzaten”.